



TOKIKO AGENDA 21. DIAGNOSTIKOA

Zuiako Udalerria

Izenburua / Título:	TOKIKO AGENDA 21. DIAGNOSTIKOA. Zuia (behin betikoa). Sintesiko taulak			
Egileak / Autores:	Paisaia, Gestión y Ordenación del Paisaje, S.L.			
Hartzaileak / Destinatarios:	Zuiako Udala eta Udalerriko Batzar Administratiboak			
Edizioko data / Fecha de edición:	2010eko abuztuak 23			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	23			
Bertsioa / Versión:	DSG_ZU-1.6-eu			
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:				
Iraupena / Duración:				
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK

Hurrengo orrialdeetan hainbat taula aurkezten dira, udal-diagnostikoaren edukiak, gai bakoitzak jasotako balorazioa, eta aztergai bakoitzerako identifikatu diren jarduerarako eremu-lehenetsiak laburbiltzen dituztenak.

2009ko udazkenaren hasieran, Diagnostikoa idazteko lanei ekiteko deitu zen partaidetzako bileran garrantzitsuen jo ziren gaiak itzaldura horiz markaturik agertzen dira.

LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.				
	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Lurralde eremua	😊	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Era positiboan nabarmentzen da populazio guneen egitura orekatua eta koherentea dela, bakoitzak bere nortasuna mantentzen duen bitartean. ▪ Zuia ezaugarri landatarrak dituen udalerrri bat da, baina azken urteotan lehenengo sektorearen beherakada eta etxebizitza eta zerbitzu garapena jasan ditu. ▪ Azpiegiturek udalerrria zatikatzen dute. ▪ Lur hiritarrean gune berdeen eta espazio publikoen eskasia dago, nahiz eta Lurzoru Urbanizaezinetan balio naturalak ugariak diren. ▪ LZPak etxebizitzaren hazkuntza proposatzen du Gasteizen ordeko gisa, baina Zuiak ez du lo-herri bilakatu nahi. ▪ 11 herri eta 3 auzo ditu Zuiak eta hauetatik Murgia, Bitoriano eta Ametzaga dira gehien hazi direnak. ▪ Murgia da burua eta zerbitzu eta instalazioak biltzen ditu. ▪ Murgian badago etxebizitza-blokeren bat, baina gainontzeko auzoetan familia bakarreko etxeak gailentzen dira. ▪ LAAek hazkuntza mugatzen dute ur eskasia dela eta. Hau Baiasen urmael batekin arintzea espero da. ▪ LAAak tipologiak berriro planteatzea proposatzen dute, eta Murgian bloke gehiago egitea. ▪ Derrigorrezkoa da 2007. urtetik aurrerako etxebizitzetan urreztatzeko urarentzat ur-tanga bat egitea 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zuiaren izaera landatarraren pixkanakako galeraren inguruan hausnartzea, helburu batzuk ezartzea, bai udalerrri osoarentzat eta bai populazio gune bakoitzarentzat, eta behar diren irizpideak finkatzea. ▪ Murgiarenean erdigunean eraikuntza-dentsitatea handitzea ▪ Garraioaren azpiegiturek (AP-68 y N-622) udalerrian sortzen dituzten zatiketak ebaluatzea udal ikuspuntutik, tokiko ekonomia eta mugikortasunaren zein baliabide naturalen gaineko inpaktuak aztertuz. ▪ Udalerrriaren hiriko gune berdeen erabilera eta egoera hobetzea. ▪ Udalerriko gune berdeak eta landaretza-elementu baliotsuak zehaztasunez identifikatu eta behar den bezala babestu. ▪ LZParen berrikustean bigarren etxebizitzarako gune desiragarri kontsiderazioa ezabatzeko eskaera egin.
	Udal lurzorua egitura organikoa eta erabilerak	😊		
	Hiri egitura eta ehundura	😊		
	Paisaia eta gune andeatuak	😐		
	Ondare arkitektoniko eta kulturala	😊		
	Lurralde eta sektore antolamendua	😊		
	Hiri antolamendua	😊		
	Iraunkortasun irizpideak sartzea	😊		

LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.

	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK
ETXEBIZITZA	Etxebizitzen ezaugarriak	☹️	<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzen dentsitatea txikia da, udalerrri landatar bati dagokion moduan, familia bakarreko etxebizitzak nagusitzen direlarik. 10 urtetan etxebizitza kopurua %32 handitu den arren, lehenengo etxebizitza kopurua asko handitu da. Azkeneko 15 urtetan 38 BOE eraiki dira. Gaur egun, BOE eskaera ase gabea dago. Ez dago eguneratutako daturik etxebizitza behararen inguruan. 2010ean 4 etxebizitza sozial amaitzea aurreikusten da, eta 2010ean 20 BOE eraikitzen hastea nahi du Udaletxeak. Herritarren aburuz azken urteotan eraiki diren etxebizitza gehienak kanpoko jendeak erosi ditu, eta salneurri altuek auzotarrak beren herrietatik joan behar izatea eragiten dute. Herritarrek uste dute seme-alabak dituztenak soilik bertakotzen direla herrian. TA21eko adierazleen inkestan batzuen ustez txalet gehiegi dago eta gazteriarentzat aldiz etxebizitza gutxi. LZPak etxebizitzen %35-67ko hazkuntza aurreikusten du 8 urtetara eta %46-90koa 16 urtetara, 2009ko balioei dagokienez. Ur horniketa da hazkuntza mugatzen duen faktore nagusia. Zuiak potentzial handia du Gasteizeko populazioa erakartzeko etxebizitza kopurua handitzen badu, nahiz eta honek zaildu egingo lukeen izaera landatarra mantentzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Zuiako herritarren etxebizitza eskaerari buruzko ikerketa egin, alokairua barne harturik. Udalerrirako aurreikusten den etxebizitzen hazkuntzak eragingo dituen lurralde-, gizarte- eta ingurumen-inplikazio eta nagusitzen den familia bakarreko etxebizitza tipologiari buruzko hausnarketa egin. Bateragarritasuna ikertzeko eta hiri ehundura kohesionatu eta bizia mantentzeko hausnarketa hedatu, Udalerrriaren izaera landatarra mantentzeko helburuarekin. Etxebizitzaren erabilera nagusia sustatuko duen neurriak barneratu, bigarren etxebizitza eta etxebizitza hutsen ehunekoa murrizteko helburuarekin. Etxebizitzen garapena Zuiako herritarrentzat eskuragarri izan daitezen mekanismoak ezarri. <ul style="list-style-type: none"> BOE eta alokairuko etxebizitza soziala bultzatu, horretarako Eusko Jaurlaritzarekin etxebizitza sozialerako beharrezko kudeaketak egin behar direlarik. Aurretik existitzen diren etxebizitza eta eraikinen birgaitzea sustatu (bai arauditik, baita neurri fiskal/ekonomikoen bidez ere), eraikin berriak ahalik eta kopuru urrienean egiteko. Obrarako lizentzia eskaera egin duten pertsonen erakuntza jasangarriaren (orientazioa, isolamendua, materialak, etab.) inguruko informazio labur bat eman. Udaletxeak edo Administrazio Batzordeak bultzatutako erakuntza edo zaharberitzeetan, erakuntza jasangarriari buruzko irizpideak barneratu Baldintza Orrian, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako gidaren arabera. Zuian alokairuzko etxebizitza soziala eskaini (udalaz gaineko eremuan).
	Etxebizitza hutsak	☹️		
	Etxebizitzen zaharberitzea	😊		
	Higiezin eskaintza: eraikuntza	☹️		
	Etxebizitza beharra eta eskaera	☹️		
	Eskaintza-eskaera balantzea	☹️		
	Etxebizitzen salneurria	☹️		
	Erakundeen arloa	😊		

LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.

	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIKAK
MUGIKORTASUNA	Eguneroko mugikortasun beharra	☺	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarren gehiengoak kanpoan ikasi/lan egiten du, eta ondorioz mugikortasun beharra handia ▪ Mugitzeko autoa erabiltzen da gehienbat (herri barneko mugimenduetarako ere), eta horrek motorizazio indizea altua izatea eragiten du. ▪ Mugitzeko erraztasuna negatiboki baloratzen da TA21 adierazleen inkestan. ▪ Sarbide onak daude autopista eta autobiaara, eta baita udalerriko guneetara ere. ▪ Garraio publikoa Zuiako Udaltalde 21eko gainontzeko udalerrietakoa baino nabarmen hobea da. ▪ Hiriarteko garraio publikoak gabeziak ditu (eskasa Bilbora, hobariak ez dira nahikoak eta gune batzuetan ez da aplikagarria, ordutegien gaineko informazioa desegokia), eta ez dago udalerriko gune desberdinen arteko garraiorik, ez eta gertuko guneen artekoa ere, nahiz eta ez den beharrezkoa ikusten. ▪ Jubilatuen Elkarteak udalerrri barrutik mugitzeko baliabide gehiago eskatzen ditu. ▪ Zuiak potentziala du bizikleta eta oinezkoen mugikortasuna sustatzeko, eta baita mendi-ibilia eta zikloturismoa (artzakurren trabarekin) garatzeko ere. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasunerako Udal-Plana idatzi. <ul style="list-style-type: none"> ○ Beharrezkoa den lekuetan espaloiak beheratu. ▪ Mugikortasunerako Udal-Plana idatzi, ondoko helburu eta ekimenekin: <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarren garraio eskaera eta garraio ohiturak ezagutzeko bideak sortu, eta ohitura hauek aldatzeko erabilgarritasuna ezagutu garraio publiko edo auto partekatura begira. Udalbatzen bileraz baliatu eguneroko mugimenduak egiten dituzten auto pribatuetan dauden plaza libreen kopurua ezagutzeko. ○ Garraio publikoaren eskaintza herritarren eskaerei egokitu. ○ Garraio publikoko konpainiei herritarren eskariak helarazi. ○ Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutako eskariaren jarraipena egin, Gasteiz eta Bilbo lotzen dituen autobusek Murgian geltokia izan dezaten, orain arte onarpen positiboa izan. ○ Garraio publikoaren (ordutegiak, tarifak) eskaintza modu egokian zabaldu, eta ordutegietan egiten diren aldaketak jakinarazi. ○ Murgia eta gainontzeko guneen arteko jubilatuen mugikortasuna hobetzeko aukerak aztertu. ○ Eskola eta institutuari oinezko edo bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzeko lankidetzak eskaini, eta aldi berean beraiekin elkarlanean oinezkoentzat bideak eta bizikletentzat bide arruntak diseinatzeko lankidetzak ere. ○ Udalerriko herri-bideen inbentarioa osatu.
	Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa	?		
	Garraio publikoa	☹		
	Oinezkoen eta bizikleten sareak	☹		
	Bide sarea	☺		
	Lurraldeko loturak eta irisgarritasuna	☺		
	Aparkalekua	☺		
	Motorizazioa eta ibilgailuak	☺		
	Istripuak	☹		
	Salgaiak	?		
Bide hezkuntza	?			

LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.

AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIKAK
		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Oinezkoentzat bideen sare zabala dago. ▪ Bide eta bidezidorretan aisialdirako eta lehenengo sektorearen erabilerak bateragarriak izateko zailtasunak antzeman dira, eta erregulatzeko eskarrietan ere. ▪ Ez dago bidegorririk, eta Murgia eta Sarria lotuko dituen bat eskatzen dute herritarrek, eta Institutura doan beste bat ere. ▪ Espaloiak berritu eta irisgarritasuna hobetu behar da, batez ere Murgia eta Ametzagan (hemen oinezkoentzako igarobidea ere falta da). ▪ Udaletxe aurreko espazioa oinezkoentzat bihurtzea aztertzen ari da. ▪ Zenbait udal-eraikin irisgarritasun falta dute, Udaletxea kasu. ▪ Lursail batzuk hobetzen ari dira, eta horretan jarraitzea aurreikusten da. ▪ Batzuen aburuz udalerrian zenbaitetan abiadura handiz ibiltzen da. ▪ Aparkatzeko orduan, gizabide falta dago batzuetan. ▪ Murgiako kale nagusian aparkalekuak erregulatzeko ideia inguruan iritzi desberdinak daude. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Bidegorri, oinezko bide, herri-bide, lursail eta pista sare bat diseinatu, hauek erabilgarriak izan daitezten herritarren eguneroko mugikortasunerako, baso-nekazaritza-abeltzaintza ekintzetarako, eta aisialdirako erabileretarako ere, eta gainera, hauek seguruak izan behar dira. ○ Bidegorri, oinezko bide, herri-bide, lursail eta pista sarearen erabilera antolatu eta arautu, aisialdiko erabileren presioa kontrolatzeko, hauen andeatzea ekiditeko ibilgailu motorizatuak direla eta, eta baso-nekazaritza-abeltzaintza lanak errazteko. ○ Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarean egokitzapen lanak egiteko beharrak planifikatu, aurreikusitako erabileren eta egungo egoeraren arabera, dagozkien lehentasunak ezarri. ○ Herritarren artean bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarearen inguruko informazioa (planoak, erabilera arauak, etab.) zabaldu. ○ Beharrezkoa den tokietan espaloiak egin eta berritu. ○ Beharrezkoak diren kudeaketak egin Ametzaga herrigunean oinezkoentzako igarobide bat proposatzeko. ○ Anbulatorioaren inguruan dauden aparkaleku aukerak modu egokian seinaleztatu. ○ Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak burutu, aparkatzea eta autoen abiaduraren ingurukoak. ○ Herritarrek Murgia eta gainontzeko guneen artean mugitzeko eta Gasteizera joateko autoa partekatze ekimenak martxan jartzeko aukerak aztertu. ○ Bide hezkuntzaren eta mugikortasun ohitura onen inguruko kanpainak maiztasunez burutu. ▪ Udalerritik (udalaz gaindikoa) igarotzen diren ibilgailuen abiadura egokitu eta kontrolatu. ▪ Ametzagako herrigunean (udalaz gaindikoa) oinezkoentzako igarobide bat proposatu.

LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.

	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA	Natura eta paisaia balioak	😊	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalerrriak natura eta paisaia ondare bikaina du. ▪ Udal antolaketan Udalerrriaren %69 Babes Berezi moduan kalifikatuta dago. ▪ Gorbeiaiko PN eta GKL udalerrriaren %60 da. Hemen ere kokatzen dira Baias ibaiko GKLa, Urkabustaizko Irla-hariztiak, eta Altubeko putzuak (Kukulupadra PNetik kanpo dago). Udalerrriko ia azalera guztia Arabako eta EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan agertzen da, eta EAEko Korridore Ekologikoen Sareko hainbat lotura eremu aurkitzen dira. ▪ Udalerrriaren %69 basoak dira, eta baso naturalak EAEko batz bestekoa bikoizten du. ▪ Gorbeiaiko PNeko habitaten kontserbazio egoera bikaina da, Urkabustaizko Irla-hariztien GKLarena erdi mailakoa/txikia AP-68ren ondoriozko zatiketa dela eta, eta Baias Ibaiko GKLarena ona. ▪ Gorbeiaiko PNak dituen arriskuak aisialdirako erabileren presioa, ehiza, abeltzaintza estentsiboa bertan behera uztea, eta baso landaketak dira. ▪ Zenbait pertsonen iritziz Gorbeiaiko PNaren zikinkeri eta utzikeria da udalerrriaren ingurumen arazorik handiena. ▪ Naturgune Babestu gehienak jabetza publikoa dute. Zenbait Onura Publikoko Mendi daude udalaren jabetzapean daudenak, 11.065 ha-z gain, azken hauen kudeaketan Udaletxeak unean-unean parte hartzen duelarik. ▪ Pertsona batzuek Baias ibaiaren ibilguaren gainean ekitea eskatzen dute, baina URAk ezezkua ematen du. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gorbeiaiko Parke Naturalaren antolamendu eta kudeaketan era aktiboan parte hartzea, udala eta Patronatuaren Administrazio Batzordeak aldetik zein herritarren aldetik. Herritarren parte hartzea bideratzeko talde edo batzorde bat sor daiteke, helburu hori duena. ▪ Udalaren jabetza duten Erabilera Publikoko Mendien antolamendu eta kudeaketan era aktiboan parte hartzea, Arabako Foru Aldundi eta Udaletxe eta Administrazio Batzordeen arteko elkarlana bultzatuz. ▪ URArekin kontaktuarekin aurrera jarraitzea, Baias ibaiaren ibilguaren gaineko ekintzekin aurrera jarraitzeko eskaera berriro egiteko, ibaiartzeko higadura ekiditeko helburuarekin.
	Kontserbazio egoera	😊		
	Jardueren eragina eta arriskuak	😊		
	Babestutako Naturguneak	😊		
	Naturgunearen kudeaketa	😊		

GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.

	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
BIZTANLERIA	Testuinguruan kokatzea	😊	<ul style="list-style-type: none"> Zuiako Taldeko biztanleriaren %25 baino gehiago Zuian bizi da. Azken hamarkadan biztanleriak %40 egin du gora, batez ere Murgia, Ametzaga eta Bitorianon, gainontzeko guneetan egonkor mantendu delarik. Murgia da gunerik handiena; Ametzaga, Sarria eta Bitorianok 250 biztanletik gora dute, eta gainontzekoek 70 biztanle baino gutxiago dituzte. Zuia populazio gazte samarra duen udalerrria da, eta generoari dagokionez orekatua da. Populazioaren %82,31k ez du udalerritik joateko asmorik. 	Ez da jarduerarako eremu-lehenetsirik identifikatu.
	Biztanleriaren bilakaera	😊		
	Egitura demografikoa	😊		
	Mugimendu naturala eta migratzailea	😊		
	Banaketa lurraldeka	😊		
OSASUNA, ONGIZATEA, BIZIKIDETZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK	Gizarte arazoak	😞	<ul style="list-style-type: none"> Adinduak, elbarrituak, haurtzarora, immigrazioa, prestazio ekonomikoak eta etxebizitzara heltzea dira aurkitzen diren gizarte arazoak. Duela gutxi eman den enpresa handienaren itxierak, zenbait dozena bizilagun langabeziara bidali ditu. 2 egoitza pribatu daude, beste bat eraikitze prozesuan, eta EALZ bat 20 plazarekin. Gizarte Zerbitzuetara zuzendutako per capita gastua EAEko batz bestekoaren azpitik dago. Etorikinei zuzendurik dauden egituratutako hizketaldi taldeak daude, eta Murgian elkar laguntzari zuzendutakoak ere. Ez dago gizarte baldintzarik kontratazio publikorako. Emakume okupazioa gizonenarenaren 6 puntu azpitik dago. 11 zinegotzitatik 3 emakumezkoak dira. Desberdintasunak daude mugikortasunean generoaren arabera. Ez dago Berdintasun Planik. 	<ul style="list-style-type: none"> Udal Gizarte Zerbitzuen lan zabalarekin jarraitu Beste guneetan bizi diren herritarrek Murgian kokatzen diren gizarte eta osasun zerbitzu eta azpiegiturretara iristeko duten erraztasuna aztertu. Udalak gizarte zerbitzuetan egiten duen gastu ekonomikoa aldiko beharretara egokitu. Gizarte politiken inguruko ekimenak bultzatzen eta babesa ematen jarraitu, egituratutako hizketaldi taldeak eta zaintzaileei zuzendutako elkar laguntza taldeak kasu. Udalerriko talde politikoen artean akordioak eta helburu komunak finkatu udal-mailako berdintasunaren inguruan. Udal kontratazio publikoetan baldintza sozialak sartu, berdintasunarekin; lana, familia eta bizitza pertsonala adiskidetzarekin; lanaren kalitatearekin, eta abarrekin lotuta.
	Gizarte zerbitzu eta ekipamenduak	😊		
	Udalaren gastu soziala	😞		
	Gizarte politika zehatzak	😊		
	Berdintasuna lan-arloan	😞		
	Berdintasuna udal mailan	😞		
	Berdintasun politikak	😞		
	Herritarren segurtasuna	😞		
	Kohesio soziala	😊		
	Gizabidea	😞		
	Osasun ekipamenduak	😊		
	IKTetara irisgarritasuna	😞		

GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.			
AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
IKTen erabileraren sustapena	😊	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Polizia kopurua herritar bakoitzeko EAEkoaren bataz bestekoa baino baxuagoa da. ▪ Zenbaitek diote iritsi berriak direnak ez direla integratzen, eta batzuek Zuian lo bakarrik egiten dutela. ▪ Kirtenkeri pixka bat dago. ▪ Familia medikua dago, OLT, pediatra eta laguntzailea; gainera asteburuan guardiako medikua eta OLTa daude. Pediatrak lanaldi erdia lan egiten du, batzuen iritziz nahikoa ez den arren. ▪ Gurutze Gorriak lokal bat dauka anbulantzia zerbitzua 24 orduz dagoena eta ZIU (Zainketa Intentsiboetako Unitatea) mugikor bat daukana. ▪ Kz-Gunea eta Interneteko doako konexioa daude liburutegian. Aurreikusitako gazteentzako zentroak Interneteko konexioa izango du, eta adinduen zentroak jada badauka. ▪ Gune batzuetan Interneteko konexioarekin arazoak daude ▪ Gazteentzako zentro bat eta lokalak eskatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arabako Diputazio Foralari eskaera bat egin: Lurralde Historikoko udalerrri txikiei berdintasun kontuetan laguntza teknikoa eskaintzeko ekimen bat abian jartzea, Gipuzkoan Berdinsarearekin egin denaren parekoa. ▪ Pediatría zerbitzuaren ordutegia zabaltzeko eskaera egin. ▪ Ea pediatría zerbitzuaren ordutegia zabaltzeko zailtasunak, herritarrak Osasun Txartelaren bizileku datuak eguneratuak ez izatearekin zerikusia duen aztertu. Hala balitz, Osasun Txartelaren bizileku datuak eguneratuak izateko garrantziaren inguruko sentsibilizazio ekimenak burutu. ▪ Osakidetzari anbulatorioa zabaltzeko aukera eskaintzen jarraitu. ▪ Udalerrriaren gune batzuetan internetera konektatzeko ematen diren zailtasunen jatorria aztertu, irtenbide egokiena aurkitzeko aurre pauso gisa. ▪ Polizia kopurua egokitzea beharrezkoa den aztertu. ▪ Udalerrian (udalaz gaindikoa) pediatría zerbitzua zabaldu.
Beste oinarrizko zerbitzu batzuk	😊		

GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.				
	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA	Hezkuntza eskaintza	😊	<ul style="list-style-type: none"> D ereduko udal haurtzaindegi bat dago, jantoki eta garraiodun B ereduko LHI, 2006tik BHI dago, B, D eta FP ereduetan eta erdi eta goi mailako zikloekin. LHIan D eredu ez egotea ez da arazotzat hartzen; ez dago argi eskaria nahikoa den ala ez. Inkestan pertsona bakar batek eskatzen du. Obra lanak egiten ari dira, eta gehiago egingo dira, heziketa azpiegiturak eskarira egokitzeko. Hezkuntza mailak gora egin du nabarmen, eta hori dela eta herritarrak lanpostu kualifikatuago bat lor dezakete. %52 euskaldunak/ia-euskaldunak dira, baina %92 gaztelaniaz hitz egiten dute. Inkestan garrantzi handia ematen zaio euskarari (10etik 7,83). Murgian AEK gune bat dago, eta Mintzalagun zein Taldeko euskara teknikaria ere. Euskaraz ekintzak antolatzeko nahiko masa kritikoa ez dagoela uste da. Udaletxeak euskara ikastaroak egiteko laguntzak ematen ditu. Euskararen Erabileraren Sustapenerako Plan Orokorra ez da egiten ari. Herritarrei bidalitako komunikazioak erdaraz egiten dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Lehen mailako zentroan D eredu ezartzeko nahiko eskari dagoen aztertu. Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Ordezkaritzari Paules zentroarentzat adostutako berrikuntzak lehenbailehen betetzeko eskatu, eta zentroa berri arte behin behineko instalazioetan, zerbitzu egokia ziurtatuko dituen segurtasun minimoak bete eta gela kopuru minimoa egon dadin ziurtatu. Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Ordezkaritzari udalerrian jadanik dauden B eta D eredu eskaintza mantentzeko eskatu. Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Ordezkaritzari hezkuntza zentro berria eraikitzeko garaian eraikuntza jasangarriko irizpideen arabera egitea eskatu. Eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera sustatu. Taldeko euskara teknikariaren postua finkatu. Euskararen Erabileraren Sustatzeko Plan Orokorra idatzi eta onartu, eta euskara ikasteko zein bere hedapenerako ekintzak antolatzeari zuzendutako laguntzen bidea finkatu.
	Hezkuntza eskaera	😊		
	Eskaintza-eskaera balantzea	😊		
	Heziketa emaitzak	😊		
	Euskalduntze maila	😊		
	Ekipamendu eta baliabideak	😊		
	Udal politikak	😊		
	Euskara udal jardueran	😊		
	Euskara eta kultura	😊		
	Kultur ekipamenduak	😊		
	Kultur jarduerak	😊		
	Herritarren dinamika kulturala	😊		
	Kirol ekipamenduak	😊		

GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.			
AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK
Kirol jarduerak	😊	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekipamendu eta eskaintza kulturala geroz eta zabalagoa da, eta herritarren partaidetza nahiko handia da. ▪ Murgia bolatokia birmoldatuko da gazteentzako zentroa jartzeko (kritikaren bat edo beste jaso du). ▪ Udaletxeak ekintzen antolaketa bultzatzen du. ▪ Kirol ekipamendu eta zerbitzuak zabalak dira. Zenbait kirol elkarte daude, eta Udaletxeak diru laguntzak ematen ditu hainbat ikastaro antolatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udal ekintza eta politikak euskarekin harremanetan jarri, eta herritar helduen artean bere erabilera handitu, beraien eguneroko bizitzetan euskara erabil dezaten. ▪ Udal jardueretan euskararen erabilera handitu: ekintzak euskaraz antolatu, etab. ▪ Jarduera ekonomikoen garapenerako udal politikak eta lan eskaintza aztertu, herritarren ikasketa mailaren etengabeko handipena dela eta, eta udalerrri berean bizi eta lan egiten dutenen kopurua hobetzeko helburua. ▪ Gazteentzako zentroaren funtzionamendua eta erabileraren jarraipena egin. ▪ Herritarren eskura geratzen diren Udalekin harremanetan jarri kirol eta kultur ekipamenduen erabilera partekatze aukerak aztertzeko, udalerrri bakoitzak egindako inbertsioei etekin handiena ateratzea eta herritarrei ahalik eta zerbitzu hobereena eskaintzea bilatzeko, ondoko gaiak tratatuz, besteak beste: <ul style="list-style-type: none"> ○ Instalazioen berrikuntzaren inguruko aurreikuspenei buruzko informazioa, eta ekintzen antolaketari buruzkoa elkartrukatu. ○ Udalaz gaindiko erabilera eta kudeaketa izango duten kirol instalazioak sortzeko aukeren inguruan hausnartu, bereziki inbertsio eta mantenurako gastu handiena suposatzen duten horien inguruan, igerilekuak, adibidez. ○ Herritarrei udalerrri desberdinetako kirol instalazioen erabilera ahalbidetuko dien hitzarmenak zabaltzea. ○ Garraio publikoa erabilita beste udalerrietako instalazioetara joan ahal izatea errazteko moduak aztertu, eta partekatutako instalazioetan eraikitze jasagarria bultzatu.
Herritarren kirol dinamika	😊		

GARAPEN EKONOMIKOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.				
	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA	Eredu ekonomikoa	😊	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu eta egoitza sektorea dira udalerrian pisu gehien dutenak. Lehenengo sektoreak pisua galdu du, abeltzaintzak garrantzia duen arren. Basogintza sektoreak potentzial du, baina gazteek ez dute horretan lan egin nahi; eta haurren aisialdiarekin erlazionatutako ekintzak ere. Herritar ekintzaileak daude, baina udalerritik kanpo garatzen dituzte jarduerak. Azken hamarkadan udalerriko aktibitate ekonomikoa beherantz doa, eta enpresa handienaren itxierak egoera hau okerrera egitea eragin du. Per kapitako errenta eskualde, Araba eta EAEko batz bestekoaren gainetik dago. 	<ul style="list-style-type: none"> Jarduera ekonomiko berriak garatzeko eta existitzen direnetan balio erantsi handiagoa ekarriko dituzten hobekuntzak sartzeko bertako ekimenak sustatzea, bereziki lehen sektoreari eta zerbitzuei lotutakoak. Udalerrian lanpostu kalifikatuak sortzea bultzatu, udalerriko enpleguaren eskaintza herritarren egungo profilari egokitu dadin, hezkuntza eta trebakuntzari dagokionez.
	Jarduera ekonomikoaren maila	😞		
	Familiaren ongizate ekonomikoa	😊		
ENPLEGUA ETA LAN-MERKATUA	Biztanleria aktiboa	😊	<ul style="list-style-type: none"> Jarduera tasa EAEko batz bestekoa baina zerbait altuagoa da. Okupazio tasa altua da. Enplegarritasuna erdi parekoa da. Emakumezko eta gizonezkoen aktibitate tasen arteko tartea ingurukoena baina txikiagoa da. Generoaren arraila eskualdekoa baino txikiagoa da. Okupazioa sektoreka ondo banatuta dago; jende ugari egiten du lan Administrazio publiko eta lehenengo sektorean. Langabezia tasa EAEko batz bestekoarena baino baxuagoa da, udalerrri mailan inpaktua duen arren. Kontratuen errotazioa baxua da, emakumezkoentzat gizonezkoentzat baino altuagoa den arren. Kontratu kopurua 1000 biztanleko txikia da, eta kontratu mugagabeak gora doaz gizonezkoentzat (jaitsiera zorrotza emakumezkoentzat), eta hemendik, emakumezkoen enplegua kalitate txarragokoa dela ondorioztatzen da. Biztanleriaren gehiengoak udalerritik kanpo egiten du lan. 	<ul style="list-style-type: none"> Taldeko enplegu-zerbitzuarekin kolaboratzea emakumezkoen lanaren kalitatea hobetzeko aukerak aztertzeke, bereziki kontratuen errotazioa gutxitzeke eta emakumezkoen kontratazioa handitzeke.
	Biztanleria okupatua	😊		
	Langabezia	😊		
	Kontratazioa	😊		
	Laneko mugikortasuna	😞		
	Enplegu eta prestakuntza politikak	?		
	Telelana	?		

GARAPEN EKONOMIKOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.				
	AZPIATALAK	BAL.	DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK	JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIK
